**Esp. kodea:** 2012RBAR0014
**Titularra:** OGASUN BATZORDEA
**Gaia:** 2012 urteko dirulaguntza deialdia
**Hasiera data:** 2012/03/27

## 4.2. ESPETXEETAN PRESO DAUDENEN SENIDEENTZAT GARRAIOKO BANAKAKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DUTEN OINARRI-ARAU ESPEZIFIKOAK

### 1. Xedea

Oinarri-arau hauen xedea da Arrasateko Udalak eman ahal izango dituen dirulaguntzak erregulatzea, aldian behin presondegietara egiten dituzten bisitak direla-eta zigorraz preso dauden edo prebentzioz kartzelaraturik dauden pertsonen sendiei sortzen zaizkien joan-etorrien gastuak zati batean diruz laguntzeko.

Dirulaguntzek bete nahi dituzte zati batean zigorraz preso dauden edo prebentzioz kartzelaraturik dauden pertsonen sendiei sortzen zaizkien gastu handiak, aldian behin presondegietara egiten dituzten bisitak direla eta.

### 2. Onuradunak

Laguntza hauen onuradunak izan daitezke Arrasatekoak izan eta espetxeetan zigorraz preso dauden edo prebentzioz kartzelaraturik dauden pertsonen sendiak, lehentasun ordena honekin:

- Ezkontidea edo izatezko bikotea
- Seme-alabak
- Gurasoak (aita-amak)
- Neba-arrebak

Lehentasunezko ordena batean sartuta dauden pertsonek kanpoan uzten dituzte, laguntza jasotzeko, lehentasun maila txikiagoan dauden pertsonak.

## 4.2. BASES ESPECÍFICAS QUE REGULAN LA CONCESIÓN DE AYUDAS ECONÓMICAS INDIVIDUALES DE TRANSPORTE PARA FAMILIARES DE PERSONAS INTERNAS EN CENTROS PENITENCIARIOS

### 1. Objeto

Es objeto de la presente normativa la regulación de la concesión de ayudas económicas que el Ayuntamiento de Arrasate podrá otorgar para subvencionar parcialmente los gastos de desplazamientos originados a los familiares de personas penadas o en prisión preventiva internas en centros penitenciarios con motivo de las visitas que puedan realizar a las mismas.

Las ayudas económicas pretenden cubrir parcialmente los elevados gastos que originan a las familias de las personas penadas o en prisión preventiva internas las visitas que periódicamente realizan a los centros penitenciarios en los que se encuentran aquéllas.

### 2. Personas beneficiarias

Podrán ser beneficiarios de estas ayudas los y las familiares de personas vecinas de Arrasate que se encuentren penadas o en prisión preventiva en centros penitenciarios, con el siguiente orden de preferencia:

- Cónyuge o pareja de hecho
- Hijos e hijas
- Progenitores
- Hermanos y hermanas

Las personas integradas en un orden preferente excluyen, de cara a la percepción de la ayuda, a las que forman parte de otro menos preferente.

Onuradun bakarra egongo da zigorpeko pertsona bakoitzeko edo prebentzio kartzelaz dagoen pertsona bakoitzeko. Baldin eta lehentasunezko ordena berean sartuta dauden bi edo pertsona gehiago pilatzen direnean, adinez nagusiena bakarrik hartuko da.

Sólo podrá haber una persona beneficiaria por cada persona penada o en prisión preventiva interna. En el caso de que concurran dos o más personas integradas en el mismo orden preferente, se considerará únicamente a la persona de mayor edad.

Senide eskatzaileek nahiz zigorpeko pertsonek edo prebentzioan kartzelan daudenek Arrasaten egon behar dute erroldaturik, dirulaguntza eskabidea aurkezten duten unean bertan.

Tanto las y los familiares solicitantes como las personas penadas o en prisión preventiva deberán estar empadronadas en Arrasate en el momento de presentar la solicitud de ayuda económica.

Dena den, Gizarte Ongizateko batzordeak ahalmena du aztertu eta erabakitzeko aurkeztu daitezkeen kasu berezi guztiak.

No obstante la comisión informativa de Bienestar Social queda facultada para estudiar y dirimir todos aquellos casos especiales que pudieran presentarse.

**3. Onuradunen obligazioak**

Zigorpean dauden edo prebentzioan preso dauden pertsonen eta senideen egoeran izan daitezkeen aldaketak, araudi honetako laguntzekin lotura izan dezaketenak (adibidez, beste espetxe batera eraman izana, aske uztea, bizikidetzako unitatearen osaeran aldaketak izatea edo egoera ekonomia aldatzea, dirulaguntza osagarria jaso ezkero), idatziz adierazi behar zaizkio eta behar bezala egiaztatu Udaleko Gizarte Zerbitzuetako sailekoei, gehienez ere 30 eguneko epean, hori gertatu denetik.

**3. Obligaciones de las personas beneficiarias**

Las modificaciones que puedan producirse en la situación de las personas penadas o en prisión preventiva y en las personas familiares, que puedan tener relación con las ayudas objeto de la presente normativa (por ejemplo, traslado a otro centro penitenciario, puesta en libertad, variaciones en la composición de la unidad convivencial o en la situación económica de la misma, en caso de percibir las ayuda económica complementaria), deberán ser comunicadas por escrito y debidamente acreditadas a la unidad administrativa de Servicios Sociales del Ayuntamiento en el plazo máximo de 30 días desde que se hayan producido.

**4. Aurkeztu beharreko agiriak**

Araudi honetan arautzen diren dirulaguntzak jaso nahi dituzten pertsonek, batetik, eskaera bete eta aurkeztu behar dute udaletxean, hartarako emango zaien inprimakian, eta bestetik, horrekin batera dokumentazio hauxe erantsi behar dute:

a) Eskatzailearen Nortasun Agiriaren fotokopia.

**4. Documentación a presentar**

Las personas que estén interesadas en percibir las ayudas económicas reguladas en la presente normativa deberán cumplimentar y presentar en el Ayuntamiento una solicitud en el impreso que se les facilitará a tal efecto, adjuntando a la misma la siguiente documentación:

a) Fotocopia del Documento Nacional de Identidad de la persona solicitante.

b) Bizikidetzako unitateko kide guztien urteko diru sarrerak jasotzen dituen dokumentazioa. Araudi honetarako, bizikidetzako unitatetzat hartuko da, eskatzailearen helbide berean bizi diren pertsonak (aurreko urteko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren deklarazioak).

b) Documentación en la que se haga constar los ingresos económicos anuales de todos los miembros de la unidad convivencial, entendiéndose por unidad convivencial a efectos de la presente normativa el grupo de personas que convivan en el mismo domicilio de la persona solicitante. (Declaraciones del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas correspondiente al ejercicio anterior)

c) Bizikidetzako unitatearen kide guztien azken nomina edo haien pentsioari buruzko agiria.

c) Ultima nómina o documento sobre pensión de quienes forman de la unidad convivencial

d) Zinpeko adierazpena, udaletxean emango den ereduaren arabera, non-eta agertuko den ondasunen titularitatea, gordailuak eta beste finantza aktibo batzuk finantza entitateetako kontuetan, bizikidetzako unitateko kide guztiena, eta horiei gehituko zaizkie dagozkien frogagiriak.

d) Declaración jurada, según modelo que se facilitará en el Ayuntamiento, en la que se hará constar la titularidad de los bienes, depósitos y otros activos financieros en cuentas de entidades financieras, de todos los miembros de la unidad convivencial, a la que se unirán los documentos justificativos correspondientes.

e) Medikuaren txostenak, gastu kengarriak sortzen dituen bizikidetzako unitateko kideren bat gaixorik egonez gero.

e) Informes médicos, en caso de enfermedad de algún miembro de la unidad convivencial que genere gastos deducibles.

f) Hala badagokio, gastu berezien frogagiriak.

f) Justificantes de gastos extras, en su caso.

g) Gizarte Ongizateko batzordeak beharrezko jo dezakeen beste edozein agiri.

g) Cualquier otra documentación que la comisión informativa de Bienestar Social pueda considerar necesaria

h) Edozelan ere, araudi honetan araututa dauden dirulaguntzen eskatzaileek, baldin eta uko egiten badiote artikulu honetako b), c), d), e) eta f) hizkietan aipatzen den dokumentazioa aurkezteari, eskubidea izango dute araudi honetako 7.4.1 artikuluan zigorpean preso edo prebentzioko kartzelan dauden pertsonen senide guztientzat ezarritako gutxieneko dirulaguntza jasotzeko.

h) No obstante, las personas solicitantes de las ayudas económicas reguladas en la presente normativa que renuncien a presentar la documentación prevista en las letras b), c), d), e) y f) del presente artículo, tendrán derecho a percibir la ayuda mínima establecida para familiares de personas penadas o en prisión preventiva en el artículo 7.4.1 de la presente normativa, siempre que cumplan los requisitos establecidos en el artículo 2 de la misma.

i) Egiaztatzea, oinarri-arau orokorren 7. artikuluan adierazitako eran, zerga obligazioak betetzen dituela Administrazioarekin.

i) Acreditar, de la forma prevista en el artículo 7 de las bases generales, que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias frente a la Administración.

j) Zinpeko adierazpena, non-eta agertuko den, hala badagokio, beste erakunde batzuek emandako (edo eskatutako) beste dirulaguntza batzuk daudela (edo dirulaguntza eskabideak).

j) Declaración jurada en la que se haga constar, en su caso, la existencia de otras subvenciones (o solicitudes de subvención) concedidas (o formuladas) por (o ante) otras instituciones.

**5. Aurkezteko epea**

Ez da finkatu eskabideak aurkezteko eperik, baina laguntza jasotzeko eskubidea sortuko da eskabideak aurkezten diren egunetik aurrera.

Edozelan ere, dirulaguntza izateko, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu aurreko hilabeteetan sortu zitezkeen eskubideak kontsideratuko dira, beti ere eskabidea aurkeztu bada GAOn argitaratu eta 30 laneguneko epean.

**5. Plazo de presentación**

No se establece plazo de presentación de solicitudes, si bien el derecho a la percepción de la ayuda se generará a partir de la fecha de presentación de las mismas.

En todo caso, a efectos de subvención se considerarán los derechos que se hubieran podido generar durante los meses anteriores a la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, siempre y cuando la solicitud se haya presentado en el plazo de 30 días hábiles contado a partir de dicha publicación en el BOG.

**6. Izapidetzeaz arduratzen den administrazio unitatea**

Gizarte Zerbitzuetako administrazio unitateak izapidetuko ditu eskabideak.

**6. Unidad administrativa encargada de la tramitación**

Las solicitudes serán tramitadas por la unidad administrativa de Servicios Sociales.

**7. eskabideak baloratzeko irizpideak**

Onuradunek eskubidea duten dirulaguntzak honela kalkulatuko dira:

**7.1. Diru sarrera gordinen zenbaketa:**

Bizikidetzako unitateko diru sarrera moduan hauek kontabilizatuko dira:

a) Bizikidetzako unitatea osatzen duten pertsona guztien diru sarrerak.

b) Espainiako Banketxean indarrean dagoen interesa ken 2 puntu, finantza etxeetan edo beste finantza aktibo batzuetan gordailuan dituzten kapitalari, lehen 6.000 €-tik gehienez ere 30.000 € arte, aplikatzetik ateratzen den kopurua.

**7. Criterios de valoración de las solicitudes**

El cálculo de las ayudas económicas a las que tienen derecho los beneficiarios se realizará de la siguiente manera:

**7.1. Cómputo de los ingresos brutos:**

Se contabilizarán como ingresos de la unidad convivencial los siguientes:

a) Ingresos de todas las personas que conforman la unidad convivencial.

b) La cantidad resultante de aplicar el interés vigente en el Banco de España menos 2 puntos, al capital en depósito en entidades financieras u otros activos financieros, desde los primeros 6.000 € hasta un máximo de 30.000€.

c) Ondasun Higiezinetatik datozen errendimendu garbiak. Ondorio hauetarako, urteko diru sarrera garbitzat joko da, bizikidetzako unitatearen ohikoak ez diren etxebizitzen katastro balioaren %10, betiere horiek errendimendu garbirik sortu ez badute aldi horretan.

Horrela izan ezean, sarreratzat hartuko da sortutako errendimendua.

**7.2. Diru sarrera gordinei kentzekoak diren gastuak:**

a) Etxebizitzaren alokairu gastuak.

b) Bizikidetzako unitateko kideren baten gaixotasunagatik sortutako gastuak, behar bezala frogaturik.

c) Eskolako gastuak.

d) Bizikidetzako unitatearen lehen etxebizitza erosteko eskatu diren maileguetatik sortutako interesak eta amortizazioa ordaintzeko gastuak.

e) Familiako kideei atentzio pertsonala eta/edo etxekoa ematetik sortutako gastuak.

f) Beste batzuk, behar bezala frogaturik.

Ez dira zenbatuko gastu kengarri moduan:

a) Garaje alokairuko gastuak.

b) Ohiko etxebizitza erostea ez diren beste inbertsio batzuen ondorioz sortutako gastuak.

**7.3. Diru sarrera garbiak kalkulatzea:**

Honela egingo da eragiketa: diru sarrera gordin guztiei gastu kengarri guztiak kendu, eta horrela, bizikidetzako unitatearen diru sarrera garbiak lortuko ditugu.

c) Rendimientos netos procedentes de bienes inmuebles. Se considerará como ingreso neto anual a estos efectos, el 10% del valor catastral de aquellas viviendas que no sean la habitual de la unidad convivencial, siempre que las mismas no hayan generado durante el periodo considerado rendimiento neto alguno.

En caso contrario, se computará como ingreso el rendimiento generado.

**7.2. Gastos deducibles a los ingresos brutos:**

a) Gastos de alquiler de la vivienda.

b) Gastos originados por enfermedad de algún miembro de la unidad convivencial debidamente justificados.

c) Gastos escolares.

d) Gastos por el pago de intereses y amortización derivados de préstamos solicitados para la adquisición de la primera vivienda de la unidad convivencial.

e) Gastos derivados de la atención personal y/o doméstica a miembros de la familia

f) Otros debidamente justificados.

No se contabilizarán como gastos deducibles:

a) Gastos por alquiler de garaje.

b) Gastos ocasionados por inversiones distintas a la adquisición de la vivienda habitual.

**7.3. Cálculo de ingresos netos:**

Se realizará la operación de restar al total de los ingresos brutos el total de los gastos deducibles obteniéndose así los ingresos netos de la unidad convivencial.

**7.4. Banakako dirulaguntzen zenbatekoa**

7.4.1. Gutxieneko dirulaguntza: 2. artikuluan ezarri bezala, onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten presoen senide guztiek, baldin eta dirulaguntzen eskaera bete eta aurkezten badute, eskubidea izango dute, gutxienez, dirulaguntza hau eman dakien:

Arrasatetik espetxera zenbat kilometro dagoen (joan-etorria), bider 0,10 €, eta kopuru horixe izango da zenbatekoa. Dirulaguntza hori, gehienez ere, hilean behin emango da. Penintsula Iberikotik kanpo dauden espetxeetara joan behar izanez gero, banakako dirulaguntza bat ematea proposatuko du Gizarte Zerbitzuetako batzordeak, kasu bakoitzaren arabera.

7.4.2. Dirulaguntza osagarria: aurreko atalean ezarritako laguntzaz gain, dirulaguntzen eskaerarekin batera, 4. artikuluan zehazten den dokumentazio ekonomikoa aurkeztuz gero eskatzaileak, diru sarrera garbiak kalkulatu eta gero, eragiketa hauxe egingo da:

Diru sarrera garbiei I eta II. taulan (ikus 1. eranskina) ezarritako kopurua kenduko zaie, bizikidetzako unitate gurasobakarrekoak izan edo ez izan, bizikidetzako unitate horietako kideen arabera.

**7.4. Cuantía de las ayudas económicas individuales**

7.4.1 Ayuda económica mínima: Los familiares de las personas penadas o en prisión preventiva que cumplan con los requisitos para resultar beneficiarios establecidos en el artículo 2 que cumplimenten y presenten la solicitud de ayudas económicas, tendrán derecho, como mínimo, a que se les conceda la siguiente subvención:

El importe que resulte de multiplicar el número de kilómetros que exista entre Arrasate y el centro penitenciario (ida y vuelta) en el que se encuentre el familiar del/la solicitante por 0,10€. Esta ayuda económica se concederá una vez, como máximo, al mes. En caso de viajes a centros penitenciarios situados fuera de la península Ibérica, el órgano competente propondrá la concesión de una subvención individualizada atendiendo a las circunstancias de cada caso.

7.4.2 Ayuda económica complementaria: Además de la ayuda establecida en el apartado anterior, si la persona solicitante hubiera presentado junto con la solicitud de ayudas la documentación económica detallada en el artículo 4, una vez calculados los ingresos netos, se realizará la siguiente operación:

Se restará de los ingresos netos la cantidad establecida en las tablas I y tabla II (Ver Anexo 1), según se trate de unidades convivenciales monoparentales o no, en función de los miembros de esas unidades convivenciales.

- Kenketa hori egin eta gero, eskaera tramitatzen den urteko lanbide arteko gutxieneko soldataren %100 baino txikiagoa edo berdina bada lortutako kopurua, eskatzaileak eskubidea izango du bi bidaia gehiagorako dirulaguntza jasotzeko, irizpide honetako 1. atalean deskribatutako formularen arabera, irizpide honetako 1. atalean arautkutako gutxienekoaz gain, hau da, hiru bidaiarako dirulaguntza.

- Realizada la resta, si la cantidad obtenida es inferior o igual al 100% del salario mínimo interprofesional del año en que se tramita la solicitud, la persona solicitante tendrá derecho a una ayuda consistente en percibir una subvención para dos viajes más, según la fórmula descrita en el apartado 1º de este artículo, además del mínimo regulado en el apartado 1 de este criterio, es decir, ayudas económicas para tres viajes.

- Hala ere, eskaera tramitatzen den urteko lanbide arteko gutxieneko soldataren %100 eta %125 artean egonez gero lortutako kopurua, eskatzaileak eskubidea izango du bidaia bat gehiagorako dirulaguntza jasotzeko, irizpide honetako 1. atalean deskribatutako formularen arabera, irizpide honetako 1. atalean arautkutako gutxienekoaz gain, hau da, bi bidaiarako dirulaguntza.

- Sin embargo, si la cantidad obtenida se hallara entre el 100% y el 125% del salario mínimo interprofesional del año en que se tramita la solicitud, el/la solicitante tendrá derecho a una ayuda consistente en percibir una subvención para un viaje más según la fórmula descrita en el apartado 1º de este artículo, además del mínimo regulado en el apartado 1 de este artículo, es decir, ayudas económicas para dos viajes

- Azkenik, eskaera tramitatzen den urteko lanbide arteko gutxieneko soldataren %125 baino handiagoa izanez gero lortutako kopurua, eskatzaileak eskubidea izango du irizpide honetako 1. atalean ezarritako gutxieneko dirulaguntza bakarrik jasotzeko.

- Por último, si la cantidad obtenida fuera mayor al 125% del salario mínimo interprofesional del año en que se tramita la solicitud, el/la solicitante tendrá derecho únicamente a la ayuda económica mínima establecida en el apartado 1º de este artículo.

**8. Aurrekontua**

Programa honen bidez deitutako dirulaguntzen zenbatekoa 17.000 €-koa da, eta finantzatuko da "1.0100.480.469.00.00 – Espetxeetan preso dauden pertsonen senideentzat garraio gastuetarako dirulaguntzak" kontu sailaren kontura.

Laguntza jasotzeko eskubidedun eskabide guztiak betetzera iritsiko ez balitz aurrekontu kopurua, handitu egingo da kopuru hori, udal aurrekontua betetzeko arauetan aurreikusten diren kredituak aldatzeko mekanismoen bidez.

**8. Presupuesto**

El importe de las ayudas convocadas a través del presente programa asciende a la cantidad de 17.000 €, y será financiado con cargo a la partida presupuestaria "1.0100.480.469.00.00- Subvenciones para gastos transporte para familiares de personas internas en centros penintenciarios".

Si la dotación presupuestaria no alcanzara a cubrir el total de solicitudes con derecho a ayuda, se procederá, a través de los mecanismos de modificación de créditos previstos en las bases de ejecución del Presupuesto Municipal, a su oportuna ampliación.

**9. Laguntzak pilatzea**

Araudi honetan datozen laguntzak bateragarriak izango dira beste edozein laguntza edo dirulaguntza lortzearekin, helburu horretarako beste edozein administrazio publikotik lortzen badira ere, baina kasu batean ere ezingo da gainditu joan-etorrien gastu guztien kostua.

Horri buruz ulertuko da kostu osoa gainditzen duela, jasotako laguntzek, oro har, kilometroko eta bisitako 0,24 €-ko kopurutik gora egiten dutenean.

Emandako dirulaguntzak kostu osoa baino handiagoak izanez gero, itzuli egin beharko zaio Udalari kostutik gorako kopurua.

**9. Concurrencia de ayudas**

Las ayudas previstas en la presente normativa serán compatibles con la obtención de cualquier tipo de subvención o ayuda que para el mismo fin puedan obtenerse de cualquier otra Administración Pública, sin que en ningún caso se pueda superar el coste total de los gastos de desplazamiento.

A este respecto se entenderá que se supera el coste total cuando las ayudas recibidas, en su conjunto, excedan de la cantidad de 0'24 € por kilometro y visita.

En el caso de que las subvenciones otorgadas superen el coste total, el exceso de la ayuda deberá ser reintegrado al Ayuntamiento.

**10. Frogatzeko epea eta erak**

Laguntza ordaindu baino lehen, onuradunak egiaztatu behar du berak edo oinarri-arau espezifikoetako 2. artikuluan agertzen diren onuradun gaietako batek benetan bisitatu duela zigorpean dagoen edo prebentzio kartzela duen pertsona.

Horretarako, espetxeko zuzendariak egindako ziurtagiria aurkeztuko du onuradunak, non-eta adieraziko den zenbat bisita egin duen benetan hil horretan onuradunak.

Bestalde, inprimaki bat emango die Udalak eskatzaile guztiei, zinpeko adierazpenaren izaerakoa, eta hori bete ondoren, onartu daiteke frogagiri moduan aurrekoaren ordez, dirulaguntzetan xede diren bisitak benetan zenbat egin diren kontuan izanik.

**10. Plazo y forma de justificación**

Previo al abono de la ayuda, la persona beneficiaria deberá acreditar que ella misma o algunas de las personas susceptibles de ser beneficiarias recogidas en el artículo 2 de las presentes bases específicas, ha visitado efectivamente a la persona penada o en prisión preventiva.

Para ello, la persona beneficiaria deberá presentar certificado expedido por la Dirección del centro penitenciario que señale el número de visitas efectuadas por la persona beneficiaria durante el mes.

Por otra parte, el Ayuntamiento facilitará a todas las personas solicitantes un impreso, de naturaleza de declaración jurada, que una vez cumplimentado, puede ser asimismo admitido como justificante sustitutivo del anterior, respecto de la realización efectiva de las visitas objeto de las ayudas económicas.

Lehen adierazitakoaren kalterik gabe, espetxeak egindako ziurtagiria nahiz bisita egin izanaren zinpeko adierazpena ordeztu ahal izango dira zuzenbidean baliozkoa den edozein agiriz, egindako bisitak benetan egin direla egiaztatzen dituenak.

Sin perjuicio de lo anteriormente señalado, tanto el certificado expedido por el centro penitenciario como la declaración jurada de haber realizado la visita podrán sustituirse por cualquier documento válido en Derecho que pueda acreditar la veracidad de las visitas realizadas.

**11. Ordaintzeko era eta epeak**

Dirulaguntza emateko akordioa adierazten duen aldian laguntza onartu eta gero, ordainduko da, oinarri-arau espezifiko hauetako 10. artikuluan aurreikusten diren frogagiriak aurkeztu ondoren, hilero (hilabete mugaeguneratua); hileko ordainketa zenbatekoa lortuko da honela: onartu den laguntza zati dirulaguntza ematen den aldia osatzen duen hilabete kopurua.

**11. Forma y plazos de pago**

Aprobada la ayuda por el periodo que señale el acuerdo de concesión, el abono de misma se efectuará, previa presentación de la documentación justificativa prevista en el artículo 10 de las presentes bases específicas, con carácter mensual (mes vencido), de modo que el importe del abono mensual se obtendrá dividiendo la ayuda aprobada entre el numero de meses que comprenda el periodo para el que se conceda la misma.

**12. Klausula gehigarria**

Oinarri espezifiko hauetan jasotzen ez diren gai guztietan oinarri orokorretan ezarritakoa izango da aplikagarria.

Halaber, Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzan eta 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta bat datozen gainontzeko lege arauetan ezarritakoari atxikiko zaio.

**12. Cláusula adicional**

En todo lo no recogido expresamente en las presentes bases específicas, se estará a lo dispuesto en las bases generales de la convocatoria.

Asimismo, regirán la Ordenanza Municipal de Subvenciones y la Ley 38/2003, General de Subvenciones y demás disposiciones legales concordantes.

**1. ERANSKINA**

Dirulaguntza osagarria zehazteko baremoa

**ANEXO 1**

Baremo para determinar la ayuda económica complementaria

| | TAULA/TABLA I | II. TAULA/TABLA |
|---|---|---|
| **Familia unitatea/ unidad familiar** | **Zenbatekoa Cuantía** | **Zenbatekoa Cuantía** |
| Kide bat / 1 persona | SMI | SMI |
| 2 kide/ 2 personas | 130% LGS/SMI | 160% LGS/SMI |
| 3 kide/ 3 personas | 160% LGS/SMI | 190% LGS/SMI |

| | | |
|---|---|---|
| 4 kide/ 4 personas | 190% LGS/SMI | 220% LGS/SMI |
| 5 kide/ 5 personas | 220% LGS/SMI | 250% LGS/SMI |
| 6 kide/ 6 personas | 250% LGS/SMI | 280% LGS/SMI |
| 7 kide/ 7 personas | 280% LGS/SMI | 310% LGS/SMI |
| 8 kide/ 8 personas | 310% LGS/SMI | 340% LGS/SMI |